

Aikor!

aldizkaria



**Asier Bidart eta Aintzane Etxebarria,
Lezamako Toponimia liburuaren egileak:**

**“Toponimo asko galdu
egin dira, besteak beste,
lurrarekiko lotura ere
galdu delako”**





Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa
(Lagatzu, Zorrizketan, Arrekikili)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe
Erredakzio burua: Itxaso Marina
Erredakzio taldea: Fernando
Larrondo, Jose Angel Mentxaka,
Alberto Legarreta, Mari Tere
Onaindia, Amagoia Guezuraga,
Belen Gana, Bihotz Bakartien
klubeko kidea.

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao,
Juanxu Bilbao, Oihana Astobieta,
Lourdes Lasuen, Asier Oruetxebarria,
Juan Luis Goikoetxea, Arantzazu
Mendiguren, Martin Orbe, Iñigo
Urrutia, Atotz Goikoetxea, Arrekikili,
Saionara eta Maripi, Aritz ta Nagel.

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la
Cuadra, Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Beñat
Aiartza.

Maketatzailea: Ainara Torres

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN
1578-9322

Aikor!-ek ez dau bere gain
hartzen aldizkarian adierazi-
tako esanen edota eritxien
erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritza



Euzko Lehen
Aldundia
Kultura Saria

diruz lagundutako aldizkaria



13 Oihane Ziordia



14 Aikor!ren 2. urteurrena



10 Mikel Zarate



11 Unai Elorriaga



20 Sondikako Akordeoi-Pentagrama Kultur Elkartea



24 Torrelarragoiti

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Laburrak eta albisteak 10Mikel Zarate 11Gurean izan
da Unai Elorriaga 12Gazteen txokoa 13Gaztea eta... Oihane
Ziordia 14Aikor!ren 2.urteurrena 17Lezamako toponimia
20Sondikako Akordeoi-Pentagrama Kultur Elkartea
22Baserri mundua 23Teknologia 24Torrelarragoiti 26Txorierri
ezagutu 27Txorierriarrak munduan 28Sukaldaritza
29Denbora pasa 30Agenda

AIKOR! aldizkariaren laguntzailea izan gura badozu, hemen dozu erea:

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Egin zure aukera: 20 euro____ beste kopuru bat____

Orri hau helbide honetara bialdu: Sabino Arana plaza, 3 48170 Zamudio
zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dogu!

Sarearen gatibu



Fernando Larrondo
(Irakaslea)

Gaurko honetan dirua eta beronegaz daukagun hartu-emona dakartsuet lerrootara. Hartu-emon konplexua, egia esateko, nekeza baita bere benetako balioaz ados jartzea. Amatau ezineko bihotzerrea, batzuentzat; ideia eta helburu zintzoak kakazten baino ez dakien agente infiltratua, besteen-tzat; elementu neutroa, arraro batzuentzat. Kostata irabazitakoa, ia denontzat, eta errazegi joaten jakuna, hori bai, guztioi.

Baina, zelangoa pajeo filosofiko-mentala-ekin jatorri oraingoan tipo hau? pentsatuko dozue, arrazoiz ganera, bere 3. urtea sendo baino sendoago hasi dauan Aikori!-ek argitaratzen dauan eritxi artikulua hau irakurtzen denbora apur bat galduko dozuenok.

Erantzuna gure poltsikoetako zuloetan dago, edo hobeto esanda, gure kontu-korronteen jatorrizko inkontinentzian.

Istoria honen argudioa aberriaren mesedetan jaiotako telefonia konpainiak emon eustan, neukan mugikorra-mobila, behin hondatuta, aldatzekotan nenbilela. Telefono mugikor barria lortu gurean joan nintzan denda-bulego laranja horreetako batera, eta hara non esaten deustan hango errubako neska umil lirainak neure telefono zenbakiari eta aurretik neukan kontratu motari eutsi gura izanez gero dendako telefonorik garestienetako bat eskuratu behar nebala ezinbestez, por pelotas, Txorierriko euskalkian.

Zer egin? Ez neban gauza handirik egin, egia esan, bezeroak uxatzeko doako

zerbitzura deitu, birritan edo hirutan, erantzunik ez eta gaur arte.

Bueno, eta zein da diruaren ganeko disertazio horren eta telefono konpainiagaz eukitako eztabaida horren arteko zerikusia? pentsatuko dozue, bigarrenenez, artikulua hau irakurtzeari itzi ez deusazuenok.

Ba, nire ustez, dirua bitartean danean edo zeken agertzeko arriskua dagoanean, protestatzeari eta eskubideak (poltsikoa) babesteari deusagun bildurra.

Dana dala, ahaztutako gaia zan hau neuretzat, baina artikulua hau idazteko aukera hor egoala barriro etorri jat burura, telefono mugikorrean tarifikazio eredua –minutuka barik, segundoka kobratzea– berrikusteko lehenengo kanpai-hotsak entzun diranean.


Baina arazoa ez da telefonoa erosi edota kontsumitzeagatik ordaindu behar dan dirutzara mugatzen. Beste mila kasu dagoz. Ura, argindarra, gasa, eta bestelango hornizioen alorrean, seguru nago milioika euro dirala modu okerrean ordaindutakoak. Nora jo, zer egin jakin ezean ibiltzen gara. Uraren eta argindarraren neurketaz arduratzen diran kontadoreak ondo ete dagoz, barrituta ete dagoz? Nork esaten deust niri hornizio horreen kontsumoaren kobrantzaz arduratu behar diranak, nagusiak eta behe mailako teknikariak zuzen, arduratsu eta fede onez ibiltzen dirala?

Antzinako monopolioak, gaurko oligopolioak, jarrera berberak.

Baina, bezeroak, normalean, ez gara oldartzen honen aurrean. Lasai gabilz, diru kontuak baino ez dira-ta.

Amaitzeko, mezu bat: mesfidantza landu, babes-eza eta duintasunaren galarari aurre egiteko. Adarra jotzea saihestu, labur esanda. Mesedez, etor daitela Keynes kapitalismo basati hau leuntzera! Lehenbailehen!

Euskera estimatu eta maitatu... erabiltzeko!



Martin Orbe
(Abadea)

Aurten beteko dira 25 urte Mikel Zarate hil zala. Lezamarra zan Mikel, Lejarrenekoa.

Abade, irakasle eta idazle izan zan Mikel. Gogoangarria berak hiru arlo horreetan itxitako arrastoa.

Baina Mikel Zarate ez zan idazle profesionala izan. Euskaltzaletasunak eroan eban idazteko eukan trebetasuna euskararen alde jartzera; bere liburuetan itxi euskun euskera aberastearren egin ahal izan ebana.

Horregaitik omenaldiak egingo jakoz aurten Mikeli, Txorierri zehar, batez be. Ondo merezitakoak, dudarik barik.

Omenaldiek, ospakizunez gain, omenduak markatutako bideari jaramon egin eta jarraitzea eskatzen dabe batez be. Argi dago, beraz, euskeraz berba egitea, euskeraz bizi, lan eta jolas egitea, euskera bizitza sozialeko arlo guztietan gailen izan dadin ahalegintzea direla omenduari –kasu honetan, Mikeli– egin dakioken omenaldirik egokiena.

Ahalegin txalogarriak egiten dihardugu ikas-tetxeetan euskera irakasten. “Noa Bilbora”... “aitari ikustzat Bilbon” (Mikelek idatz eta Mintz izeneko alegian jarritako adibideak dira) esan beharrean, “Bilbora noa”... “aita ikusi dot Bilbon” zergaitik eta zelan esan behar dan irakatsi behar jake gure gazteei, eta ez hain gazteei.

Baina euskera irakasteaz gain, ala irakasteaz batera, baditugu ezinbesteko zeregin bi. Euskera estimatu: garrantzitsua eta ederra dala konturatu; bizkaiera euskalki aberatsa dala ikasi, eta Txorierriko hizkeraren dotoretasunaz jabetu.

Eta euskera maitatu. Herri egiten gaituen bihotza euskera dala ez inoiz ahaztu. Eta gogoan izan horrexek egiten gaituela aske.

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aretxalde 1, 48196 Lezama edo aikortxori@yahoo.es

Albisteak eta laburrak

Ipuin lehiaketaren sari banaketa



Txorierriko Mankomunitateak antolatutako ipuin lehiaketako sariak urtarilaren 15ean banatu ziren Zamudio dorrean. Bertara hainbat ume, gazte eta guraso bildu ziren eta Kandelen argipean taldeko ipuin kontalariaren saioa ikusteko aukera izan zuten.

Ipuin lehiaketaren 6. edizioan 426 idazlek hartu zuten parte, 5 kategoriatan banatuta. Kategoria bakoitzean sari bi eman ziren, baina askok akzesita ere lortu zuten. Epaimahaia osatu zuten Lurdes Lasuen

Mankomunitateko euskara teknikariak, AEK eta Udal euskaltegiko irakasleek, Maruri-Jatabe eta Laukizko euskara teknikariak eta Esther Martin euskaldun berriak.

Irabazleei Ainhoa Etxezarreta Zamudioko zinegotziak eman zizkien sariak: jostatzeko autoak, argazki-makinak, motxilak, egurrezko erlojua eta CDak gordetzeko mailetak, besteak beste.

Lurdes Lasuen euskara teknikariak adierazi duenez, edizio honetan par-

tehartze handia egon arren, herri batzuetako jendearen falta sumatu da kategoria batzuetan. Beste alde bate-tik, 16 urtetik gorakoentzako kategorian espero zuten baino lehiakide gutxiagok hartu dute parte. Horregatik, ipuin lehiaketaren hurrengo edizioetan parte hartzera animatu nahi izan ditu txorierritar guztiak. Eskoletako irakasleen lana ere gorai-patu du Lurdesek, izan ere, ipuinak oso txukun eta polito aurkeztu dituzte umeek.

Badatoz Aratusteak

Testua: Zarpantzarra

Aratusteak laster izango dira eta dagoeneko Txorierriko Udalek eta elkarteek hainbat ekintza antolatu dituzte festa hori ospatzeko.

Sondikan otsailaren 27tik 29ra bitartean ospatuko dira. Derion, Larrabetzun eta Lezaman, berriz, lehenago izango dira, otsailaren 20an hain zuzen ere.

Lezamako plazan artista lehiaketa egongo da arrastiko 7etan. Gainera, lezamarrek herri afaria izango dute herriko pilotalekuan 21:00etan. Ostein, areto-dantza eta diskoteka izango dira. Derion berbena izango da arrastian.

Loiukoek otsailaren 24an ospatuko dituzte aratusteak. Herriko pilotalekuan txitxiburduntzia eta animazioa izango dira arrastiko 5,30etatik aurrera.

Beste alde batetik, Zamudioko Udalak Aratusteetako mozorro ikastaroa antolatu du. Ikastaroa otsailaren 2, 4, 9, 11, 16 eta 18an emango da dorretxean, iluntzeko 7,30etatik 9,30ak arte.

Ikastaroan parte hartzeko urtarilaren 30a baino lehen eman behar da izena.

Argibide gehiago nahi izanez gero, Udaletxean eskura daiteke.



Hernaniko Larregain sagardotegira bidaia

Derioko Txepetxa AEK euskaltegiak bidaia bat antolatu du Hernaniko Larregain sagardotegira joateko. Bidaia otsailaren 14an izango da eta 28 euro ordaindu beharko da. Argibide nahi izanez gero 944543967 telefono zenbakira dei daiteke.

Sondikako San Joan jaietako kartel lehiaketa

San Joan jaietako XVII. kartel lehiaketa antolatu du Sondikako Udalak. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek Udaletxean edo Liburutegian eskuratu ahal dituzte lehiaketaren oinarriak, otsailaren 23tik aurrera. Lanak aurkezteko epea martxoaren 26an amaituko da 14:00etan.

Agate deuna Txorierriin

Urtero lez, otsailaren 4an Agate deuna ospatuko da eta Txorierriko kintoak baserririk baserri ibiliko dira egun osoan abesten. Udalek eta elkarteek ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horretarako.

Esaterako, Lezamako eskolako umeek kalejira egingo dute herritik goizean; Ekidazu abesbatzak txanda hartuko du arrastiko 7etan. Loiuko jubilatuen Gure Etxea elkarteok ere abestera irtengo dira.

Josu Naberan Zerurena jatetxean

Josu Naberan idazleak Euskaldunen antzinako ilargi egutegia aurkeztu zuen abenduaren 23an Sondikako Zerurena jatetxean. Bertan hainbat lagun bildu ziren, kulturako zinegotzia eta Jesus Garitaonaindia Bilboko Begoña basilika-ko parrokoa euren artean. Naberanek azaldu zuenez, lehengo euskaldunek ilargia kontuan hartuta antolatzen zuten euren bizimodua. Beraz, ilargiak berak urtaroak eta astegunak zehazten zituen.

XVI. Futbol areto txapelketa

Otsailaren 1ean XVI. Futbol areto txapelketa hasiko da Sondikan. Partida guztiak Goronda Beko Polikiroldegian jokatu dira.

Juan Manuel Etxebarriak hitzaldia emango du Zamudion



Oraindik egun zehatzik egon ez arren, Zeberioko Juan Manuel Etxebarria irakasle eta etnografia iker-tzaileak otsaileko azken astean, arratsaldean, hitzaldia emango du Zamudioko liburutegian.

Horrela, bada, orain dela gutxi argitaratutako *Euskal urtea ohituraz betea* liburuaz arituko da Etxebarria. Liburu horretan gure Amalurkeko historia luzean bizitako hainbat jai, ohitura, ipuin, errito eta abar luze bat batu eta gaur egungo bizimoduarekin erlazionatzen ditu.

Hitzaldiaren egun zehatza kartel eta publizitatearen bidez jakinaraziko da.

Erromeri dantzen ikastaroa Derion

Derioko Tximintx euskara elkarteak erromeri dantzen ikastaroa antolatu du, Lainomendi dantza taldearekin batera. Ikastaro hori jende guztiari zuzenduta dago. Barikuetan emango da, iluntzeko 8etatik 9etara, Derioko institutuan. Lehenengo eguna urtarrilaren 24a izango da, eta azkenekoa, berriz, otsailaren 20a. Bazkideek 5 euro ordainduko dute eta bazkideak ez direnek 8 euro.

Ikastaro honen helburua da biribilean edo korroan egiten diren dantzak

ikastea, ikasleek aukera izan dezaten jaietan egiten diren era horretako dantzetan parte hartzeko. Ikastaro honetan ikasten dena jendaurrean erakusteko lehenengo aukera otsailaren 20an izango da, Aratusteetan.

Argibide gehiago nahi izanez gero, hemen lortu ahal izango da: Mapfre (Ester) eta Txepetxa AEK (Belen). Bestela, 635153595 telefono zenbakira dei daiteke edo tximintxaeuskalerria.org helbide elektronikora mezu bat bidali.

Amodiozko gutunen lehiaketa

Maiteminduen eguna dela eta, Amodiozko Gutunen Lehiaketa antolatu du Derioko Txepetxa AEK euskaltegiak. Kategoria bi berezi dira: batetik, A kategorian, 16 urtera bitartekoek hartuko dute parte, eta B kategorian, berriz, 16 urtetik gorakoek. Nahi duten guztiek aurkeztu ahal izango dituzte euren lanak, zeinek bere kategorian.

Lanek euskaraz idatzita egon beharko dute eta originalak eta argitaratu gabeak izan beharko dute. Haien luzera ez da orrialde bitik gorakoa izango, eta orriaren alde bakar batetik idatziko dira. Eskutitzak gutunazal handi batean sartuta aurkeztuko dira eta kanpoko aldean kategoria idatziko da. Gutunazal barruan lana eta beste gutunazal txikiago bat sartuko dira. Gutunazal txikiaren barruan egilearen datuak jarriko dira. Amodiozko gutunak otsailaren 6a baino lehenago aurkeztu behar dira euskaltegian. A kategoriako irabazleari liburu edo disko bat emango zaio saritzat; B kategoriako irabazleari, berriz, lagun birentzako afaria Txorierriko jatetxe batean.

Loiuko Jai batzordearen bilera

Urtarrilaren 30ean, larunbatean, Loiuko Jai batzordearen lehenengo bilera izango da arratsaldeko 8etan Zabaloetxeko eskola zaharretan. Bileraren horrek San Pedro eta Santa Luzia jaiak antolatzen hasten du helburu.

Sondikako Gazte azoka bertan behera

Aurreko aldizkarian aipatu genuenez, Gabonetan Gazte azoka egiteko asmoa zuten Sondikako Gaztetxeak. Azokan lortutako dirua Irunberriko Arangoiti ikastolari eman nahi zioten.

Hala ere, azoka bertan behera utzi behar izan zuten, jendeak ez baitzuen eurek espero bezala erantzun. "Pena izan da gure asmoa ona zen eta. Gainera, erabiltzen ez ditugun gauza asko dauzkagu etxean eta beste batzuek aprobetxatu ahal dituzte", esan dio Aikorra Iñigok, Gaztetxearen arduradunak.

Amerikako mendirik altuenetara


Sondikako Gotzon Zubiaur, Zamudioko Jon Aroztegi eta Mungiako Javier Gorospe Amerikatarara joango dira otsailaren 4an. Horrela, bada, Andesetako Aconcagua (6.956 m), Pissis (6.882 m) eta Ojos del Salado (6.864m) mendietara igotzeko asmoa dute. Mendi horiek Ameriketako altuenak dira.

Gotzon eta Jonek azaldu diguten araber, hilabete osoko espedizioa egingo dute. Horrezaz gain, Andesetara bidaia egiteko irrikan daudela esan digute.

Txorierriko gazteek lau hilabete darrazmatzate espedizioa prestatzen. Gainera,

egunero entrenamendua egiten dute; astean zehar korrika egiten eta Euskal Herriko hainbat menditatik ibiltzen asteburuetan.

Dena dela, hori ez da izango lehendabiziko erronka Jon eta Gotzontzat, munduko hainbat menditatik, Mont Blank (4.807 m) eta Pico Lenin (7.134 m) esaterako, ibiliak baitira. Horrexegatik, ondotoxoz egutzen dituzte mendi gailurrean topatu ahal dituzten arriskuak: elur-jauziak, altuerak sortzen duen gaixotasuna, izozketa... Arriskuoi aurre egiteko prest daude.



Manuenek 20 urte bete ditu

Orain dela 20 urte, Osakidetza toxikomanoak birgizarteratzeko zentroa zabaldu zuen Larrabetzun, Manuene baserrian hain zuzen ere. Harrezkero, hainbat gazteri drogak uzten lagundu diete bertako profesionalak. Urtarrilaren 16an 20. urteurrena ospatu zen Barakaldo antzokian.

Linterna gorria sarean

Linterna Gorria aldizkari elektronikoa (www.armiarma.com/bbk/linterna) sortu dute Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubekoek. Bertan narrazioak, poesiak eta elkarrizketak irakurtzeko aukera izango da. Aldizkariaren edukia hilero berrituko dute, hilaren 17an.

Frantziara bidaia

Txorierriko Udalek Frantziara bidaia egingo dute apirilaren 8tik 12ra bitartera. Autobusa, hotela (ostatua eta gosaria), azaltzaile eta aseguruak daude eskaintzaren barne. Era berean, La Rochelle herria, Futuroscope parkea, Loirako gazteluak eta Cognaceko Remy Martin upelategia bisitatuko dira.

Bidaia prezioa eta abarreko informazioa eskuratzeko galdetu zure liburutegian edota udaletxean.

Otsailaren 17a baino lehen eman behar da izena.

Kutsidazu bidea, Ixabel

Larrabetzu, Lezama eta Zamudioko Udalek *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlanak ikustera irteera antolatu dute. Antzezlanak otsailaren 12an, eguenean, izango da arratsaldeko 8etan Arriaga antzokian.

Kutsidazu bidea, Ixabel gehien irakurri eta saldu egin den euskarazko liburua da. Bertan, bere euskara maila hobetzeko asmoz, baserri batera uda pasatzera doan gazte baten abenturak azaltzen dira. Gorringo antzerki taldeak eszenatokietara eraman du lan hau.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu Udaletara.

Uritarraren futbol zelai berria inauguratua

Urtarrilaren 3an inauguratu zen, Larrabetzuko futbol zelai berria. Belar artifizialeko futbol zelairik onena omen da Estatu osoan.

Inaugurazio ofiziala aurkezpenarekin hasi zen. Ondoren, zelaia bedainkatu zen, oroimenezko plakaren estalkia kendu, futbol zelaia gainera informazioa eman eta, ohorezko ateraldiaren ondoren, inauguratutzat eman zen zelaia.

Ondoren, hiruko partida jokatu zen, 17 urtez azpiko emakumeen euskal selekzioa, 25 urtez azpiko emakumeen euskal selekzioa eta Athletic klubeko emakumeen ekipoko jokalarien artean. Hiruko honetako azken partidarako bidea, Uritarreko gazteen ekipokoek egin zieten jokalariei. Athleticeko jokalariek izan ziren garaile.

Arratsaldean, Larrabetzuko eskolako umeek Uritarrekoei egin zieten bidea, Busturiako ekipoaren kontra joka zezaten. Uritarra izan zen garaile, lau eta bi.

Partida honetan ere, oroigarriak banatu zitzaizkien Uritarraren sortzailea izan zenari, Busturiako taldeari eta epaileari.

Aldarrikapen ezberdinek ere bere tokiak izan zuten hainbat pankarten bidez.

Eguna biribiltzeko jokalariek guztiak Ankapalu sagardotegira joan ziren afaltzera.

Larrabetzuko Uritarreko jokalariek aho bete hortz daude, erregionaleko bigarren taldeko jokalarientzat horrelako ezaugarriak dituen futbol zelaia egin izanagatik. Uritarreko jokalarien esanetan:

"Zelaia lehengoa baino zabalagoa eta luzeagoa da. Baloia askoz errazago kontrolatzen da. Antza, merkatuan dagoen belar artifizialik preziatuena da. Lehen euria egiten zuenean oso desatsegina izaten zen jokatzea; orain, berriz, ez gara lohitzen. Hori bai, belar mota honek badu bere alde txarra, jaus-terakoan azala urratzen zaizu eta batzuetan erre izanaren sententzia ere izaten dugu.



Lagun asko batu ziren futbol zelaia inauguraziora. Zelaia bedainkatu ondoren, hiruko partida jokatu zen.

Argitasuna ere hobetu da, lehengo zelaiak sei foku zituen; oraingoak, berriz, hogeita lau. Hau ere abantaila da: neguan ez daukagu partidak zer-tan hain goiz jokatu. Harmailak ere jarri dituzte, ikusleek partidua eroso-ago ikus dezaten. Egia esan behar badut, Uritarreko jokalariek, oso

pozik eta gustura gaude zelai berriarekin. Ez dakit horregatik izango den, baina, zelai berri honetan jokatu ditugun lau partidetatik, hiru irabazi eta bat berdindu egin dugu. Arrazoia edozein izanda ere, ea bolada honek gurekin segitzen duen, denboraldia bukatu arte behintzat!"

Mikel Zarate Lejarraga: lagun, abade eta irakasle

*"Hementxe egoten izan zara
baina orain ez zaude gurekin.
Hementxe egoten izan zara
baina orain ez gaude zurekin.
Orain alde egin duzu
betiko ote...
Ez, ez, ez, zure fedez
zure lagunek diote
agur, gure Mikel, gero arte"*

Lauroetako ermitaren ateburuan dagoen oroitarrian agertzen da Mikelek bere lagun baten heriotzan egindako olerki eder hori.

Mikel irakasle eta euskaltzaleari buruz asko idatzi eta esan da, eta egingo ere bai. Hemen Mikel lagun eta abadeari buruz egingo da.

Zorion handia izan genduan laurota-
rrak hamar urte luzez Mikel geure abade
lez eukita. Derioko Seminarioan bizi zan
eta domeka eta jai-egunetan etorten zan
Laurotara meza emotera. Astean behingo
hartu-emona izan arren, hartu-emon zin-
tzoa eta sakona zan Mikel eta laurotarron
artekoa. Eta hau bere izakerari esker
gehienbat. Gizon zabala eta edonogaz
egoteko modukoa zan. Eleiztarron abade
eta danon laguna izan zala esan daiteke.

Euskaltzale sutsua zan modura, fede
gizon sakona ere bazan, eta baekian ondo
bai ondo fede hori besteengana zabaltzen.

Bere abade lanik garrantzitsuena litur-
giaren ingurukoa zan: autortza (konfesi-
noa) eta eukaristia (meza). Meza ostean
guztiakaz berba egin, eta, astia egoanean,
Germanegaz bertso-aldia edo, bestela,
mus-aldia tabernan.

Vatikano II.aren ondoren aldaketa sako-
nak egin ebazan Eleizak: lehengo latinen
ordez herriaren hizkuntza erabiltzen hasi ziran
eleizkizunetan. Lehen ormara begira emoten
eben meza abadeak, orain jendea begira.



Aitzgorri, 1972. Florentino Arrizabalaga, Iñaki Eguzkiza, Lontzo Zugazaga, Mikel Zarate eta beste lagun bat

Urte hareetan, 1970 inguruan, egin
ziran ermitan aldaketak eta barrikuntzak.
Mikel, gaztetan hargina edo albañela izan-
dakoa, buru genduala, auzolanean barriz-
tatu genduan San Migel ermita: altara
zaharra eta pulpitu bota eta altara barria
eginez (arte enbor baten gainean mahai
bat, gaur egun ikusi daiteken lez).

Lehen latinez eta jendea atzea emo-
nez, inork ezer ulertu eta ezelako parte
hartzerik barik. Orain dana euskeraz, jen-
deak parte handiagoa hartuz bai otoitze-
tan bai euskerazko kantuetan.

Eta zer esan Mikelek meza hasieran
eta amaieran kantatzen ebazan bertsoei
buruz? Laurotar askok gogoan doguzala
oraindik orduko eleizkizunak. Gogoan eta
bihotzean dogu baita Mikel gure abadea.

Bere heriotzaren 25. urteurrenean
gogoan izango dogu otsailaren 1ean
Laurotan egingo deusogun omenaldian.

*Testua: Juanxu Bilbao
Argazkia: Lontzo Zugazaga*

Egitaraua

Urtarrilak 30:

Lezaman: 18:00etan *Bilbo irribarrez* Lezamako
eskolako umeak (Kultur aretoa).

Derion: 20:00etan Labayru ikastegia: ekitaldi
kulturala (Seminarioan).

Urtarrilak 30:

Derion: 19:00etan *Ekidazu* antzezlan,
Kukubiltxo eta Oskorri (Kiroldegian).

Otsailak 1:

Lauroetan: 12:00etan: Meza bere omenez,
ostean: Mikel gure abadea zanari buruzko alka-
rrizketa, Juan Luis Goikoetxeak zuzenduta.

Ondoren: luncha, Laurotako txakolinagaz
14:00etan: bazkaria, Aurregoiti jatetxean.
Bazkaltzera etorri gura dozenok deitu: Iñakiri
(944531718) edo Juantxuri (944533786)
Bazkal ostean: Amuritza, Lopategi eta Azpillaga
bertsolariak. Laurotako Jai Batzordeak antolatuta.

Otsailak 6:

Lezaman: 20:00etan *Agate Deuna* kontzertua
Ekidazu abesbatza eta Zamudioko Bertoko
(Kultur aretoa).

Otsailak 27:

Lezaman: 20:00etan Bihotz Bakartien Kluba
poema musikatua (Kultur aretoa).

Unai Elorriaga, idazlea

“Euskal literaturaren belaunaldi berria kazetariak asmatutako kontzeptua da”

Unai Elorriaga idazle gazteak Espainiako Narratiba Sari Nazionala jaso zuen 2002an *SPrako tranbia* liburuarekin. Bere lehendabiziko nobela izanda, pare bat hilabete sinistu ezinik ibili zela aitortzen du. Duela gutxi euskal idazle gazteei buruzko hitzaldia ematen izan dugu Zamudion.

2002. urtean zuri eta iaz Mariasun Landari... Modan zaudete euskal idazleok?

Ez, baina euskal literatura oso maila handikoa da; idazle asko eta, gainera, onak ditugu. Horregatik datoz sariak...

Dena dela, zuk ez duzu sarietan sinisten...

Nire ustez, ezin da literatur sarietan sinistu, halakoetan gustuak eta subjektibotasuna izaten direla hartu behar da kontuan. Zergatik eman niri eta ez beste bati?

Sari horrek bizitza aldatuko zizun: hainbat ekitaldi eta aurkezpenetara joan behar izatea... Eroso sentitzen zara?

Bai, ez dudalako lantzat hartzen, erraz egiten den zerbait da. Benetako aldaketa da Meridako liburudenda batean nire liburu bat salgai egotea eta bertan ere liburu hori irakurri duen pertsonaren bat topatzea.

Itzultzailea izanda, zuk zeuk itzultzen dituzu zeure liburuak erdarara. Zail egiten zaizu?

Bai, ezberdintasun handiak daudelako bi hizkuntzen artean: musikaltasuna, erritmoa, esaldiak, adjektiboak... Gauza askotan pentsatu behar duzu, beraz, euskaraz eta erdaraz tonu berbera lortzeko.

Zure lanari ekingo diogu, *SPrako tranbia*-n zahartzaroa aurkezten diguzu. Nola sar daiteke zu bezalako gazte bat burua galtzen ari den zahar baten buruan?

“Euskal literatura oso maila handikoa da; idazle asko eta onak ditugu”

“Benetako aldaketa da Meridako liburudenda batean nire liburu bat salgai egotea”

“Estilo zorua erabiltzen dut liburuetan”

Ni ez naiz zahar baten buruan sartu. Kanpotik ikusten dudana deskribatu baino ez dut egin.

Van't Hoffen ilea zure azken nobela dugu. Zer auri dezakegu bertan?

Liburu zorua da, umore handikoa. Pertsonaiek jolasean ematen dute denbora osoa. Hori gauza inportantea da, gaurko munduan jendeak jolas gutxi egiten du eta.

Zertan oinarritzen zara pertsonaien perfilak egiteko orduan?


Hartu honen pentsatzeko era, horren heriotza ikusteko modua, haren hitz egiteko manera..., egin nahasketa, eta pertsonaia sortzen da.

Nola definituko zenuke zeure estiloa?

Itzulpengintzaren zehaztasunez kokoteraino amaitu dut. Horregatik, estilo zorua erabiltzen dut liburuetan.

Euskal Literaturaren belaunaldi berriari buruz hitz egitera etorri zara...

Nire ustez, ez da existitzen: kazetariak asmatutako kontzeptua da. Horrela, bada, Literatura banako gauza delakoan nago.



Unairen ustez, ezin da literatur sarietan sinestu.

Hala ere, egia da gai batzuk –heriotza eta maitasuna, esaterako– guztiok jorratzen ditugula.

Prestige-ri buruzko filma baten gidoian parte hartuko duzulako zurrumurrua ailegatu zaigu...

40 bat idazleri eskatu ziguten gidio bana egiteko, gero laburmetraia filmatzeko. Batzuei nirea gustatu zitzaion, baina, nahiko laburra zela eta, gehiago jorratzeko esan zidaten. Horretan nabil orain. Gustatuz gero, filmatu egingo da.

Horrezaz gainera, zer duzu orain esku artean?

Hirugarren nobelarekin hasi beharko nintzateke, baina ez dakit noiz... Denbora dudanean. Protagonista eta narratzaile nagusia ume bat izango da.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



Hirugarren nobelarekin hasteko asmoa dauka Unai

SMS: Segapotoen Mezu Sekretuak

Sakeleko telefonoa egunero erabiltzen dugun gauza da. Duda barik, hasieran nahigabea sortzen zigun ditzosozko aparatutxo horrek (–Segapotoa? Zertarako? Egun osoan erraz aurkitzeko moduan egoteko? Yuppiek bezala kalean hitz egiteko? Nik ez.– pentsatuko zuen batek baino gehiagok) eragin handia dauka gure bizitzan. Horrela, bada, ume eta gazteek ez ezik, heldu eta aitona-amama modernoagoek ere erabiltzen dute munduko gauzarik arruntena izango balitz bezala. Izatez, bada. Bai, mugikorrak ia guztiok harrapatu gaitu.

Marka guztietakoek, polifonikoek, alaromadunek, gero eta txikiagoek, jokodunek, Internetekin konexioa dutenek... guztiek betetzen dute primeran Bell-ek asmatutako aparailu haren helburua: jendearen arteko komunikazioa erraztea. Are gehiago, sakeleko telefonoek mezuak bidaltzeko aukera eskaintzen digute, merke gainera.

Gauza arrunta da, beraz, baten bat (gazteak batez ere) hatz lodia trebetasunez erabiltzen ikustea nonahi.

Baina, lagunei mezua bidaltzeko Biblia osoa idatzi behar? Hitzak laburtuz gero, ulertuko didate? Baina, zer demontre jartzen du hemen?

Lazkaoko San Benito Ikastolako ikasleek antzeko galderak euren buruei egin zizkieten eta sakeleko telefonorako euskarazko hiztegi berezia egitea otu zitzairen. Honela, “Zazpiak batman” kolektiboak, zenbait babesleren laguntzarekin (Euskaltel, Eusko Jaurlaritza eta Lazkaoko Udala), SMS, Segapotoen Mezu Sekretuak liburuskak atera zuten Kilometroak 2003rako.

Gainera, mezu laburren grafia berrian oinarrituta, “euskrrz 2zi ny dt” leloa aukeratu zuten Kilometroen edizio horretarako.

Oharra: Aikorrekin SMS, Segapotoen Mezu Sekretuak liburuskak ditu. Ale bat eskuratu nahi baduzu, 944523447 telefono zenbakira deitu baino ez duzu egin behar. Deitzen duten lehenengo 50 pertsonari emango zaie.

Testua: Itxaso Marina

Mezu laburrak idazteko orduan...


SMS, Segapotoen Mezu Sekretuak liburuskak Euskal Herriko ikasleak euskaraz harremanetan jartzea dauka helburu; teknologia berriek euskaraz ere badakitela erakustea eta, horrela, hizkuntza jolasgai, kaletar, adierazkor eta bizia lortzea.

Hori dela eta, hainbat proposamen egiten dizkigute egileek mezu laburrak idazteko orduan:

Ytzr (aitzur, mozkor), **atsld** (arratsalde), **+++** (askoz gehiago), **astº** (asteburu), **2dal** (bidali), **2xmn** (biharamun), **5xl** (bost axola), **skol** (eskola), **ftt** (futitu, paso egin), **ttama** (gurasoak), **zorrry** (izorra hadi), **muxuxx** (musu asko), **ztkit** (ez dakit)... eta abar luzea.

Horrezaz gain, SMSez euskaraz idazteko dekalogoak ere aurkezten digute liburuskak:

1. Ez dago araurik; denak dira proposamenak, liburu honetan agertzen direnak ere bai.
2. Ulertzen den guztia balekoa da.
3. Hizkera hau kolektiboa da. Denon artean asmatu eta eraiki behar dugu. Mezuak euskaraz bidaltzen ditugun neurrian sortuko da.
4. Ahalik eta pultsazio gutxien erabili.
5. Bokak gehienak soberan daude (skrrisk = eskerrik asko).
6. “H” ez da ia erabiltzen, akronimoetan ez bada (EHBS = hi ez hago burutik sano).
7. Zenbakiak eta zeinuak nola ahoskatzen diren, hala erabili (2ar = bihar).
8. Batua nahiz euskalkiak baliagarriak dira.
9. Maiuskulak hitzak nabarmentzeko erabiltzen dira.
10. Ongi pasa eta gutxi gastau!



“Lehenengo plateretik azkeneraino izan behar dugu janaz gozatzeko gogoia”



Zamudioko gazte honi txikitatik gustatu zaio sukaldean hara eta hona ibiltzea. Horregatik, sukaldaritza munduan saiatzea erabaki zuen institutua amaitu ondoren. Sukaldaritza arloan goi mailako ikasketak egin ditu, eta ogi eta gozogintza arloan, berriaz, erdi mailako ikasketak. Gainera, hainbat lekutan egin du lan: kanpinetan, hoteletan, jatetxeetan, ... Gaur egun, Elgoibarko Lanbide Hastapenatarako Ikastegian dabil ogi eta gozogintza arloko eskola ematen.

Ematen du sukaldaritzan aritzen diren ikasleek sukalde barruan ematen dutela egun osoa, ez dutela ikasi behar...

Ez, gauza asko ikasi behar dira: zelan erabili produktuak, zelan garbitu eta zati-tu... Sanitate-arauak ere ikasketa-planaren barruan daude. Gainera, marketinga eta kontularitza ere irakasten dira, negozioa jartzeko lagungarriak direlako.

Ostalaritzan zaila da lana topatzen?

Gaur egun ez. Beste kontu bat da non eta zein lan baldintzatan. Nire ustez, inportantea esperientzia hartzea da, baina egoera duin batean, noski. Hori dela eta, edozein leku ona da ikasteko. Pixkanaka-pixkanaka hobetuz joan behar da...

Eta emakumea izateak oztoporik dakar?

Konturatzen bazarete, jatetxe gehienetako postu garrantzitsuetan gizonetako egoten dira normalean. Emakumeok, berriz, entsaladak prestatzen jartzen gaituzte... Emakumeok egunero erakutsi behar dugu gauza garestia lana ondo egiteko, eurek baino hobeak garestia.

Gizonak emakumeak baino sukaldari hobeak direla uste dute askok. Ados zaude?

Ez, sukaldari ezin hobeak diren emaku-

me asko daude, baina, oraintxe aipatu dudak bezala, ez zaigu aukera bera ematen.

Zein lanetan ibili zara?

Sukaldari laguntzaile lanetan eta post-treak prestatzen ibili nintzen hasieran. Sukaldari lanetan ere ibili naiz, baita mahaiak zerbitzatzen ere.

Eta zein arlo gustatzen zaizu gehien?

Guztiak, baina batez ere gozogintza. Askoz politagoa da. Beno, ni oso gozozalea naiz.

Zelan ikusten duzu ostalaritza mundua?

Nire ustez, apur bat gutxietsita dago. Profesional gutxi daude eta edonor hartzen da barraren atzean lan egiteko nahiz mahaiak zerbitzatzeko. Horrek kalte egiten dio zerbitzuaren kalitateari. Askok uste dute lan hau edozeinek egin dezakeela, baina badu bere zailtasuna. Azken batean, zerbitzu ona eskaintzeko jakin beharra dago zelan ipini platerak eta mahai-tresnak, zelan hartu edalontzia eta beste hainbat gauza.

Orain eskola ematen duzu. Zelan aldaketa?

Pozik nago. Ostalaritza nahikoa gogorra da: ordu asko sartu behar dira, asteburuetan lan egin beharra... Aldaketa ona izan da.

Gaia aldatuta, etxekoek behin baino gehiagotan esango dizute jatorduak prestatzeko, ezta?

Bai, baina gutxitan egiten dut. Animatzen naizenean, erregimentu oso batentzako janaria prestatzen dut. Gurasoak etxetik kanpo daudenean, neuk prestatzen diet jatekoa neba-arrebei... Eta lagunen artean berdin: -Aizu, paella prestatu behar dugu, nork egingo du? Ba, Oihanek. Badakizue, sukaldaria egonda, beste-ek eskuak garbitu eta beste kontu batera!

Zein platera prestatzea gustatzen zaizu gehien? Eta gutxien?

Gozogintzakoak: hojaldreak, tartak, babaroak... Neure burua askoz trebeagoa ikusten dudalako. Eta gutxien entsaladak. Letxuga asko garbitu behar izan ditut.

Zer deritzozu sukaldaritza berriari?

Betikoa gustatu arren, sukaldaritza berriaren aldekoa naiz. Postre nahiko beteta ailegatzeko ohitura dugunez, ez ditugu baloratzen postrea eta kafea, baina horiek ere oso garrantzitsuak dira. Horregatik uste dut lehenengo plateretik azkeneraino izan behar dugula janaz gozatzeko gogoia.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Hoberantz

Testua: Atotz Goikoetxea

Joan dan urtarrilaren 15ean Aikorrek bere bigarren urteurrenara bildu ginduzan Txorierritarrok. Euskara Alkarte, kolaboratzaile, dantza talde, erakundeetako ordezkari eta irakurle aldra ederra Lezamako eskola zaharrean entzule, lan isilaren miresle.

Pedro Mari Goikoetxearen aurkezpen-hariak Xabier Goienetxe zuzendariarengaino eroan ginduzan lehenengo.

Hasierako 4000 Aikor aleak 5000 dira gaur, eta orrien baltz-zuria oihan koloretzuan barruratuz doa. Era berean, ehundik gora kolaboratzailek atondu ditue berbaz iazko aleak. Datu itzaropentsuak!

Mikel Zarateren omenaldiaren atarian, bere poema eta alegiek belarriak hezetu euskuezan, Zorritzetan euskara taldeak prestatuta daukan zaparradaren iragarpen legez. Berba be egin euskun,

Natxo de Feliperen gitarraren doinura, ameslari.

Omendutik omendura, momenturik beroena eskeini jakon oraintsu joandako Iskanderri. Itsaso beraren olatu bi.

Gehiagorik barik, atsotitzak ziurtasunez dioskuna aipatu beharko, batez be egunez egun aldizkaria argiratzea posible egiten dabenei: " Bi ezkeru, hiru seguru!"



Bertoko txalaparta-jole gaztetxoek ongi etorria eman zieten gonbidatuiei.



Lan handia sukaldean.



Zorritzetan, Lezamako Euskara Alkarteko Lurdes Prudenciok Mikel Zarateren omen-urtean zehar egingo diren ekitaldien berri eman zuen.



Unai Elorriagak Mikelek idatzitako olerkiak ederki irakurri zituen.



Jendeak arreta handiz jarraitu zion ekitaldiari.



Joseba Butronek Mikelen bizitza gogoratu zuen.



Ikusmin handia gonbidatuen artean.



Nabxorekin batera Aita sementa kanta abestu zuten bertan zeuden guztiek.



Musika ere izan zen.




Iskander era Inakirentzat sari bana. Amak Iskanderrena hartu zuen.



Josu Camara, Etxahun Lekue, Gotzon Barandiaran eta Inigo Gaztelu.



Arteaga Koltxoi-dendarentzat beste sari bat.



Joseba Butron eta Juan Luis Goikoetxea.



Ordezkaritza politiko zabala izan zen. Besteak beste, Luis Ramón Alvarez Lezamako alkatea eta hainbat zinegotzi.



Alaitz Ziordia, Nora, Eider Bilbao, Ixone Zubieta, Atotz Goikoetxea eta Jose Angel Mentxaka.



Larrabetzuko neskak beti bezain jator eta alai.



Txorierriko txakolingileak ere presente egon ziren.



Juantxu Bilbao, Jose Angel, Fernando Larrondo eta Aitor Lopez.



Ales Atxutegi, Jose Luis Barrenetxea, Javi Pascual eta Iñaki Astorkiza.



Lander Aiarza Derioko alkatea, Jesus Enrique Lagunas Derioko zinegotzia eta Asier Oruetxebarria.

“Baserritarrek kontatutako hainbat biziera eta gertaera ere sartu ditugu liburuan”



Urtarrilaren 23an Lezamako Toponimia liburua aurkeztu zen herriko udaletxean. Lan honek, denboraren poderioz galdutako izenak berreskuratzeaz gain, itxuraldatu direnak arteztu eta herriko leku-izenak arautu gura ditu. Lezamako Zorritzetan Euskara Elkartek eraginda eta Lezamako Udalak nahiz Bizkaiko Foru Aldundiak babestuta, Labayru Ikastegiak bere ardurapean hartu zuen proiektua. Asier Bidart eta Aintzane Etxebarria liburuaren egileekin hitz egiteko aukera izan dugu.

Lehenengo eta behin, azaldu, mesedez, zertan datzan Toponimia.

Tokian tokiko leku-izenak aztertzea da Toponimiaren helburua. Hau da, izenen eboluzioa batu, gaurko erabilera ikusi, bilakaerarik izan duten aztertu eta gerora leku-izen horiek arautu egiten dira.

Lezamako Toponimia liburuari dagokionez, nola antolatu duzue lana?

Lana bi fasetan antolatu dugu: lehenengoan, hainbat artxiboetako informazioa hustu dugu, eta bigarrenetan ahozko

bilketa egin dugu, horretarako Lezamako 150 lagun elkarriketatu ditugu.

Zein artxibo kontsultatu dituzue lehenengo fase horretan?

Foru Aldundikoa, Historiko Probintziala eta Jabego Erregistroa. Nahiz eta azken hau, berez, artxiboa ez izan, oso garrantzitsua da dokumentazio-bilketarako, izan ere, etxe edota soloen izenak ez ezik jabeenak ere agertzen dira bertan. Horrezaz gainera, Lezamako Udal Artxibategia, Gernikako Batzarretako Artxiboa, Eliz Artxiboa eta

Deustuko Unibertsitateko Deiker Institutuko datu-basea ere erabili ditugu. Informazio hori guztia Labayru Ikastegian sortu dugun datu-basera eraman dugu. Hortik aurrerakoak, erredakzio eta maketazio beharrak.

Hutsunik topatu duzue artxiboetan?

Ez, dokumentazio handia dago. Baina ezer aitatzekotan desitxuratutako leku-izen asko topatu ditugula: aitzinako notarioak erdaldu-nak izanda baserritarrei ulertzen zieten idazten zuten eta, batzuetan, horrek zer ikusi gutxi zeukan herriko jendeak esaten zuenarekin.

LEZAMAKO TOPONIMIA



1.100 bat toponimo batu dira liburuan.

Eta baserriz baserri ibili behar izan zarete ahozko fasean...

Baserritar batengana jo baino lehen, oso aurreratuta izan behar duzu lehenengo fasea; hau da, zertaz galdetu jakin behar duzu. Ezin diozu esan *–Zu, zelan dauka izena solo horrek?–*, ziurrenik berak ez du jakingo zer erantzun. Baina galdeztzen badiozu *–Eta zergatik esaten jako zal-dipozo solo horrerik?–*, berak emango dizu azalpena: *“atxine zaldi asko egozalako bertan eta putzu bat be baegoan eta zal-diak putzu horretan edaten ebien”*. Gauza askoren jakitun izan behar duzu orduan: baso horrek nola duen izena, zeintzuk dira baserri honen lurrak, ondokoarenak...

Suposatzen dut edadeko jendearengana jo behar izan duzuela...

“Ingurua ondo ezagutu behar duzu informantearekin geratzeko”

Bai, eurek inork baino hobeto dakitela-ko zelako bizimodua egiten zen aspaldian, nola zuen izena erreka hark, baso honek... Ezezaguna bazara mesfidantzaz hartzen zaituzte: *–Zetako hainbeste pregunta? Nontzat eiten dozu behar?–*, baina herriko-edo bazara inguruetako auzoetakoek ondo hartzen zaituzte... Gainera, Zorritzetan taldekoek ere lagundu egin digute proiektua azaltzen baserririk baserri.

Hori dela eta, zelan hartu du herriko jendeak proiektua?

Pozik agertu dira, alde batetik, Labayru Ikastegiak hartu-eman handia duelako Txorierriarekin eta, beste aldetik, ikerketa hau Lezamako Udalak eta Zorritzetan elkarteak Mikel Zarate lezamarraren gogoramenaz antolatu duten omenaldi barruan ere dagoelako.

Benoa, eta azterketa sakon honen emaitza Lezamako Toponimia liburua dauka-gu. Zer topa dezagun bertan?

1.100 bat toponimo batu eta bakoitza kronologikoki sailkatu dugu. Gainera, erabileraren erabileraz batzuek bilakaera izan dutenez arautu egin behar izan ditugu Euskaltzaindiak irizpideei jarraituz. Adibidez: herriko jendeak Madaria toponimoa darabil, baina Madariaga arautu dugu. Beste adibide bat: gaztelaniaren eraginez leku-izenek *–s* plural marka hartu dute, *–eta* nahiz *–aga* atzizkiei erantsita. Horrela, Bidekurtzetas Bidekurtzeta beharrean, edo Olabarriagas Olabarriaga beharrean.

“Testu guztiak Lezamako euskaraz nahiz bizkaiera arautuaz agertzen dira”

Azterketa egiten genbiltzala Lezaman, aspaldian, lau auzo zeudela konturatu ginen. Horrexegatik lau atalek osatzen dute liburua. Halaber, ez genuen toponimiari buruzko lan arrunta egin nahi eta baserritarrek guri kontatutako hainbat biziera eta gertaera ere sartu ditugu liburuan. Testu guztiak Lezamako euskaraz nahiz bizkaiera arautuaz agertzen dira.

Kontaiezaguzue hauetako istorioren bat...

Ba, aitzinean Bermeotik ere jendea astoz etortzen omen zen Lezamako Santa Kurtz ermitara. Horrela, bada, bataiarri horretara etorrita eta meza entzun ondoren, hitz egiteko arazoak zituzten umeak berba egiten hasten zirelako ustea zegoen.

Beste bat...

Lehen Lezama eta Larrabetzu arteko mugan harri bat zegoen. Harri honek Sansonarri zuen izena. Kontatu digutenaren arabera, Sanson Euskal Herrira etortzen zenean, bidaia luzea egin behar zuen, eta atsedean hartzeko harri horretan esertzen zen. Gero, hanka bat Ganguren mendilerroan ipini eta bestea Berreagan, makurtu eta itsasoan trago bat ur hartzen zuen.

Liburua ez ezik mapa ere egin duzue...

Hasiera batean ohiko mapa egiteko asmoa genuen, baina Zeberiokoa ikusi eta gero antzekoa egitea erabaki genuen. Mapa dotorea eta didaktikoa egin gura genuen. Mapa bera eskuz egin da eta Lezamako hainbat leku-izen agertzen dira,

baita baserrienak ere. Larrabetzuko Aitziber Ariznabarretak marraztu ditu baserriak.

Baserriei dagokienez, kasu batzuetan bi izen arautu ditugu: bizia / historikoa. Adibidez, Zapatariena / Kurtzelarra. Nonbait bigarrena da baserriari ipinitakoa eta lehenengoa lehenengoa baserri horretan bizi zenaren ofiziotik eratorria, horrela ezagutzen dute gainera lezamatarrek. Hori dela eta, izen biak agertzen dira bai liburuan bai mapan.

Toponimo edo izen asko galdu egin dira. Zergatik?

Besteak beste lurraekin izan dugun



Aintzane, berriz, artxiboetan ibili da.

“Lezamako etxe guztietan banatuko da liburu eta mapa bana”

lotura eten delako. Gure aitona-amonek guk baino lotura zuzenagoa zuten euren inguruko solo, baso eta errekaekin... eta izen bana ematen zieten. Gaur egun, berriz, industriara edota beste sektore batzuetara jo dugu, eta lurrarekiko lotura galdu. Horrexegatik, leku-izen asko galdu egin dira edo desagertzeko zorian daude. Bestetik, ugazaba aldatzean ere sarritan leku-izenak ere aldatzen dira.

Zenbat denbora eman duzue lana burutzeko?

2002. urteko azaroan hasi eta joan den abuztuan bukatu genuen. Oso lan trinkoa izan da; lehenengo fasea, batez ere, orduak eta orduak ematen baitugu artxiboetan bakarkako lanean.

Eta zer leku aztertu dituzue?

Lezamako guztiak: basoak, soloak, baserriak, erreka, auzoak, iturriak... Iturri naturaletako uraren kalitatea ere aztertu dugu herriko botikariaren laguntzarekin. Lurzorutik harako ura edatea osasunerako kaltegarri izan daiteke, baina dena den Lezamako iturri guztietako ura edangarria da, nahiz eta batek ere ez duen kloro tratamendurik jaso.

Lan honek erabilera izango du gero, ezta?

Ba, horretarako egiten dira horrelako lanak, galdu egin diren toponimoak berreskuratzeko, desitxuratu direnak artezteko... Gero, Udalak indarra eman beharko dio proiektuari baserrien errotula-



Asierrek ahozko bilketa egin du baserririk baserri.

zioaren bidez... Gainera, Lezamako Udalak etxe guztietara banatuko du liburu eta mapa bana eta, horretara, herriaren ezagutza ere bultzatuko da.

Bukatzeke, zerbait gehitu nahi?

Bai, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektua aurrera eramaten lagundu digutenei: informatzaileei, artxiboetako zuzendariari, Deustuko Unibertsitateari, Lezamako Udalari, Zorritzketan elkartekoei, ...

Testua eta argazkiak: Itxaso Marina

“Gure taldeak bilakaera handia izan du”



Testua: Itxaso Marina

Argazkia: Sondikako Akordeoi-Pentagrama Kultur Elkartea

Herriko gazte batzuek instrumentu hau jotzen zutela ikusita, talde bat osatzea bururatu zitzaion Yolanda Ugarte akordeoi irakasleari. Horrela, Sondikako Akordeoi-Pentagrama Kultur Elkartea sortu zen 1997an. Sei urte hauetan ikasleek etorri eta joan egin badira ere, taldea sendotzea lortu dute partaideek. Aikorrek Yolanda Ugarte zuzendariarekin, Tichla Ahmed akordeoi-jolearekin eta Alberto Garcia perkusionistarekin hitz egiteko aukera izan du.

Zenbat partaidek osatzen dute taldea?

15 akordeoi-jolek, perkusionista bik eta zuzendariak. 13 eta 30 urte bitarteko 18 lagun gaude orotara.

Aurrera egiteko laguntzarik jasotzen duzue?

Bai, batzokiak utzitako lokalean egiten ditugu entseguak hasieratik. Horrezaz

gain, diru-laguntza jasotzen dugu Udaletik. Beste alde batetik, saioen bat herritik kanpo eskaintzen dugunean ordaindu egiten digute.

“Oso saiatua izateaz gain, ikasi ere asko ikasi behar da akordeoia jotzeko”

Eta zenbat kontzertu eskaini duzue herritik kanpo?

Ba, egia esan, hiru... (barreak). Kontzertu bi Larrondon eta beste bat Loiun. Egin ere, saio gehienak Sondikan egin ditugu.

Yolanda, nola ikusten duzu zuk taldea?

Nire ustez, bilakaera handia izan dugu. Gure errepertorioa askoz zabalagoa eta zailagoa da orain hasieran baino. Gainera, hobekuntza hori nabaria da interpretazioaren kalitatean ere. Ildo honetan, jendeak taldea ez uztea ezinbestekoa da, izan ere, ikasleek etorri eta joan eginez gero taldea ez luke aurrera egingo.

Taldeak partaide gehiago izatea gustatuko litzaizueke?

Bai, baina taldean parte hartzeko akordeoi nahiz solfeoko oinarritzko ezagutza izatea beharrezkoa da.

Zenbat orduz jo behar da astean zehar maila ona lortzeko?

Taldekide gehienak ikasleak direnez, ezin ditut nekatu. Hori dela eta, bi orduko entsegua egiten dugu astean zehar. Halaber, etxean ere praktikatzeko agintzen diet. Maila ona lortzeko astean bost orduz, gutxienez, jotzea beharrezkoa da.

“Jendeak taldea ez uztea ezinbestekoa da aurrera egiteko”

Zaila da akordeoia jotzea?

Erreza ez, behintzat. Oso saiatua izateaz gain, ikasi ere asko ikasi behar da...

Kuriositatez, zenbat kiloko pisua dauka eta zenbat balio du akordeoi batek?

Pisu askotakoak badaude ere, akordeoi arrunt batek bederatzi kiloko pisua izango du. Beste alde batetik, garestiak dira. Erdi mailako kalitateko batek 3.000 _ balio du.

“Sondika eta alboko herrietan jotzea daukagu helburu”

Tichla eta Alberto, nolako zuzendaria da Yolanda?

Ona esan beharko... (barreak). Diziiplina handia daukagu taldean...

Yolanda: Bai. Ikasle guztiak entsegutara etortzea gustatzen zait...

T eta A: Eta arazorik izanez gero, guztiok etorri ahal izateko ordutegia aldatzen da eta listo!

Alberto, zu perkusionista zara...

Bai. Musika-piezaren arabera panderoa, triangelua, kaskainetak... jotzen ditugu.

Eta zein musika-piezak jotzen dituzue?

Denetarik: biribilketak, zortzikoak, habanerak, jotak...

Urduri jarriko zarete jendaurrean...

Bai, jotzen hasi baino lehen batez ere...

Anekdotaren bat?

Y: Askok. Halako saioetan musikariak

zuzendaria baino lehenago ateratzen dira eta behin, Sondikako elizan, partitura barik irten nintzen ni. Pentsa ezazue, mundu guztia zutik eta txaloka niri harrera egiteko... Eta nik partiturak ahaztuta! Ba, partituren bila joan behar...

Akatsik egiten dira kontzertuetan?

Bai. Batzuek jotzen jarraitzen dute ezer gertatu ez balitz bezala; beste batzuk, berriz, aho zabalik gelditu eta, noski, entzule guztiak konturatzen dira akatsaz.

Zein da taldearen helburua?

Y: Sondikan eta alboko herrietan jotzea, besterik ez. Ez ditut ikasleak nekatu nahi.

“Jendeak ez dauka halako ekitaldietara joateko ohiturarik”

Kontzerturik eskainiko duzue laster?

Bai. Batzokiak 25. urteurrena ospatuko du maiatzean eta guk ekitaldietan hartuko dugu parte. Era berean, San Juan jaietan eta herriko auditorioaren inaugurazioan arituko gara.

Jenderik biltzen da zuen kontzertuetara?

Gero eta jende gehiago biltzen bada ere, guk are eta entzule gehiago etortzea nahiko genuke. Egia esan, jendeak ez dauka halako ekitaldietara joateko ohitura...

Animatu zuek orduan!

Ba... Etor zaitezte gure saioetara, primeran pasatuko duzue eta! Gainera, betiko abestiak entzuteko aukera ere izango duzue.

“Zerbitzua, kalitatea eta prezioa dira gure armak”

Victorrek 26 urte daramatza harakintza eta txarkuteria merkatuan. Aspaldidanik, beraz, da ezaguna Sondikan bere produktuen kalitateagatik. Gainera, Bilboko lehiaketan parte hartu du askotan eta postu onak lortu ditu beti. Aikor! solasean izan da berarekin.

Victor, dendan saltzen duzue okela...

Gurea da. Ni Loiukoa naiz eta bertan daukagu ganadua: idiak, behiak eta, batez ere, txahalak. Ganaduak jan naturala hartzen du.

Horrezaz gainera, txarkuteria ere baduzue. Etxekoa da?

Bai, etxeko produktuak dira guztiak. Beno, Burgoseko odolosteak ere baditugu, bezero batzuek eskatu egiten dituzte eta.

Odolosteak eta txorizoak zeuek egiten dituzue orduan,...

Bai, dendako beharlekuan. Eta esan behar da beharleku hori homologatuta daukagula. Guk bertoko odolosteak egiten ditugu dendan. Odolosteak prestatzeko kipula, porrua, arroz pitin bat, koipea, odola, gatza eta pikantea erabiltzen ditugu. Txorizoak egiteko, berriz, txerri-okela, piperra, gatza eta baratxuria.

Nondik ekartzen duzue lehengaia?

Txerri-heste handizkari bati erosten diogu. Hesteak oso garbi datoz eta guk gatzgabetu baino ez dugu egin behar.

Etxeko produktuak izanda, garestiak izango dira, ezta?

Lehengaia garestia denez produktua garestitu egiten da, baina gu prezioak egoitzen saiatzen gara. Dena dela, jendeak nahiago du kalitatea.

San Martin egunean lehiaketa egiten da Bilbon. Zuek behin baino gehiagotan hartu duzue parte ...

Bai, irabazleak izan gara birritan eta finalistak besteetan.



Victorrenean etxeko produktuak egin eta saltzen dira

Konpetentzia handia?

Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako jende askok hartzen du parte lehiaketa horretan. 100 bat lagun egongo ginen iaz, izan ere, irabazi edota postu ona lortzea mesedegarria da negoziarako...

Eragina izaten dute halako lehiaketek negozioan, ezta?

Duda barik. Sondikako jendeak betidanik ezagutzen gaitu, baina, lehiaketak direla eta, Txorierriko beste herrietako edota Algortako jendea, esate baterako, etorri zaigu dendara okela, odolosteak eta abarrekoak erostera.

Okela eta txarkuteriaz gain, beste produkturik baduzue dendan?

Beno, ogia eta pastelak saltzen ditugu... Prestatutako platerak ere egiten ditugu: makailua, piper beteak...

Supermerkatu handiek jan egiten dituzte komertzio txikiak...

Supermerkatu handiek merkatu-kuota handia lortzen dutenik ezin dugu ukatu, baina guk gure armekin egin behar dugu burruka.

Eta zeintzuk dira arma horiek?

Zerbitzua, kalitatea eta prezioa.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Webcam bat zure bizitzan

Testua: Alberto Legarreta

Komunikabideetan entzun edo irakurri dogu Elorrioko abeletxe baten webcam edo web kamera batzuk ipini dirala eta, kamera horren bitartez, baserriko eguneroko bizimodua ikusi leikela Internetetik (<http://www.gran-jafamiliar.com>). Web orri horretara sartuta ikus daiteke zelan zaintzen diran abereak eta zein dan euren eguneroko bizitza. Web orri honen helburua bertako produktuen publizitatea egitea da. Beraz, marketing era bat da, bertako produktuen ezaugarriak (behiak, txarriak, eusko labela eta abar) erakusten ditue eta. Horrela,



helburua lortu egin da, komunikabide askotan agertu eta, ganera, askok bisitatu dabelako web orri hori.

Hemen, Euskal Herrian, ez gagoz ohituta holango gauzak ikusten; ganera, Internet ez dogu oraindino hainbeste erabiltzen. Estatu Batuetan, oster, badira, euren eguneroko bizimodua Interneten erakusteko asmoz, euren etxeetan webcam batzuk ipini dabezanak. Era horretan, dirua atara dabe, jende asko sartu dalako holango web orrietan. Gran Hermano, Basetxea, Barnetegia eta holango telebista programak ideia horretan oinarrituta goz. Jendeak jakin-mina izaten dau parte-hartzaileen eguneroko bizimodua ikusi gura dau Interneten webcam horien bitartez. Interneten jorografia lekuak be badagoz, web kamerak erabiltzen dabezanak.

Bideokonferentzia

Bideokonferentzia puntu biren teko irudi- eta soinu- komunikazioa la esan daiteke. Hainbat enpresatan ezik, jende artean be gero eta gehi-erabiltzen da, Internet bidez harremanak izateko.

Enpresak euren delegazioen arteko harremanak eta bilerak eukiteko erabiltzen dabe. Software, ipo eta konexio era asko dagoz.

Jende artean erabiltzekoak ez dira restiegiak. Nahikoa da ADSL edo



Cable Modem

konexioa eukitea Internetera konektatzeko (modem arrunt batek ez du lortzen komunikazioa behar bezain arin emotea).

Ordenagailura konektatuta dagoan kamara da Webcam. Gainera, ez da garestia eta softwarea dohainik lortu daiteke bideokonferentzia egiteko.

Netmeeting-a izaten da da gehien erabiltzen dan softwarea. Ez da gatxa instalatzea eta erabiltea.

Hemen helbide interesgarri batzuk:

<http://www.terra.es/personal/velayos1/netmeeting/netmeeting.html>

http://www.ibiblio.org/sinner/video/camera_es.html

<http://www.rekursosvoip.com/netmeeting/index.php>

Zamudioko Larragoiti jauregian enpresak sortzeko zentro bat jarriko da

Jauregia lan-prestakuntza praktikoaren bidez konponduko da. Obrak urrirako amaituta egotea nahi da.



Testua: Itxaso Marina

Zamudioko Larragoiti jauregia berriztatzeko lanak 2002ko uztailean hasi ziren, Udalaren eta Peñascal fundazioaren artean eginiko hitzarmenaren ondorioz. Antza denez, eraikin hau XVIII. mendean egiteko agindu zuen Bilboko Larragoiti familiak, oporrak eta beste egonaldi batzuk bertan igarotzeko. Proiektu osoa burutzeko 1.020.000 euro jarri dira eta urrirako amaituta egotea espero da. Handik aurrera Zamudioko jauregi hau enpresa-mintegitzat edo enpresak sortzeko zentrotzat erabiliko da. Iñaki Arana obraren koordinatzaileak proiektu honi buruzko hainbat argibide eman dizkio Aikor! aldizkariari.

Eraikina prestakuntza praktikoaren bidez egokitzen ari da...

Bai. Peñascal fundazioak INEMekin akordio bat egin zuen, eta Casa de Oficios izeneko hitzarmenaren barruan gaude gu. Ikasleek, sei hilabeteko prestakuntza teorikoa jaso ondoren, sei hilabeteko lan kontratua izango dute. Lanbiderako prestakuntza emanez egin nahi dira obrak.

Zenbat lagun aritzen dira lanetan?

Eraberritze lanetan hiru gremiok hartzen dute parte: elektrizistak, arotzak eta igeltseroak. Gremio bakoitzean monitore bat eta zazpi bat ikasle izaten dira.

Zenbat fasetan egingo da proiektua?

Hiru fasetan. Lehenengoan, dorrea ireki eta egokitze lanei ekin genien: taillerak egin, komunak eta aldagela ipini... Gainera, dorrearen barrualdean sasitza handia zegoen, eta sasi eta sastrakak kendu beharra izan genuen zorua egiteko. Saneamendua bigarren fasean egiten ari gara; une honetan, hain zuzen ere, prestakuntza fase horrexetan gabiltza. Hirugarren fasean, azkenik, azpikontratatu-tako enpresak sartuko dira, hormak eta egitura nagusia egin ondoren. Guk, bitartean, prestakuntzarekin jarraituko dugu.

“Prestakuntzaren bidez obra egitea dugu helburu”

Zein egoeratan zegoen dorrea ireki zenutenean?

Barrualdea behera jausita zegoen. Horregatik, horma batzuk harriz harri desegin eta harriz harri altxatu behar izan ditugu berriro. Harriok Santanderretik ekarri dira. Dena dela, ahal izan dugun neurrian, jatorrizko eraikuntza mantentzen saiatu gara.

Gaia aldatuta, prestakuntza teorika ez ezik praktikoa ere...

Hemen dauden ikasle gehienek porrot egin dute ikasketetan. Teoriak aspertu egiten ditu askotan, eta ez diete azalpenei jarraitzen. Prestakuntza praktikoaren bidez, oster, egunik egun ikasten dute. Hala ere, guk ez dugu prestakuntza teorikoa alboratu nahi.

Beste alde batetik aipatu beharra dago, hainbat arrazoigatik, ikasle asko etorri eta joan egiten direla, eta horren ondorioz zailtasunak ditugu proiektua amaitzeko, beste ikasle berri batzuekin berriro hasi beharra izan dugulako...



Hiru gremio ibiltzen dira eraberritze lanetan: elektrizistak, arotzak eta igeltseroak.

Ikastaroa amaitu ondoren, prestakuntzarekin jarraitzen dute ikasleek normalean?


Nik ikusi dudanaren arabera, gehienek ez. Beste ikastaro batzuk egiten dituzte, beharrezkoa izaten bazaie, baina ikastaro batek ez du zerikusirik izaten bestearekin. Orain igeltsero ikastaroa egiten dute, gero zeramika ikastaroa...

Hau bezalako beste inizatiba batzuetan parte hartutako ikasleek negozioa jarri dute gero. Hemendik ere sortuko dira?

Ba, ez dakit. Lehen aipatu dudan bezala, gure helburua prestakuntza da. Proiektuaren barruan ez dago egiturarik gazte hauek lan mundura bideratzeko. Hori bai, agiria eman go zaie prestakuntza bukatu ondoren...

Dena dela, halako profesionalen estimazio handia izaten dute lan-merkatuan gaur egun...

Bai, ia-ia ez dagoelako profesionalik. Horrezaz gainera, egurrezko egituretan lan egiten denean, nire ustez, ez da begirunerik izaten lan egiteko lehengo moduarekin eta egitura zaharrekin. Gure ondarea baserrian oinarritua dago eta, baserriak berriztatzen direnean, askotan ikusten da lehenagoko filosofia albo batera uzten dela. Baserriaren filosofia hori lantzen saiatzen gara gu.



Horma batzuk harriz harri altxatu behar izan dira.

Peru eta Mari, 500 urtetik gora lo

Peru eta Mari ezagutu gura badituzue, orain da une egokia. Lehenengo eta behin Erandio Goikoko Andra Mari elizara hurbildu. Eliza 1100. urtean eraikia izan zen eta XV. eta XVI. mendeetan berreraikia. Orintsu berriztatua, gaur egun garbi eta dotore agertzen zaigu.

Zabalik aurkituz gero, sartu barrura eta gozatu: estilo gotiko nabarmeneko zutabe sendoak, kapitelak, arkuak, ganga ederrak, medailoiak... Erretaulak, jakina, berriagoak dira, estilo rococo eta neoklasikokoak. Kanpora irten, elizaren aurrean jarri eta dorrea begiratu. Guztiz originala, gotorleku itxurako kanpandorrea, ez da erraza inguruan holako eliz dorrerik aurkitzea. Liraina, sendoa, arku gotiko handi batzuen gainean eraikia eta gailurreri oso artistiko batez amaitzen dena.


Ikuskizuna ez da amaitu. Eliza kanpoalde-tik inguratzen duzuen bitartean, dorre azpian ia, hilobi interesgarri bategaz egingo duzue topo. Euskal Herrian ez da oso arrunta. Etzanda dauden bi estatua dira, andrazkoa eta gizonezkoa, azpian hilobiratuta daudenen figurak izan daitezkeenak. Hilobiaren atea 3 armarrik osatzen dute, alboetakoak Martiartuko zuhaitza eta otsoa irudikatzen dituztenak, eta erdikoa, berriz, Zamudioko armarría.

Bertan 500 urte baino gehiago lotan daudenak Martiartuko jauntxo Martin Ortiz eta bere emazte Zamudioko Mayora dira.

Antza ez ziren elizaren fundatzaileak, babesleak baizik.

Hori historia izango da, baina bertakoz entzat hor hilobiratuta daudenak **Peru eta Mari** dira (Perú eta Marí ahoskatuta). **Peru** Erdi Aroko gerlariz jantzita, arma guztiekin, sare-mailak, lepoko petoa, eskuzorroak, zango-babesak eta ezproi edo espuela handiak. Eskuak ezpata luze bati helduta. **Marik**, haren ondoan, jantzi luze eta fin baten gainean ondo apaindutako beroki antzekoa du soinean, oinetan luxu handiko txanelak eta buruan txano antzeko bat.

Zenbat ume, belaunaldiz belaunaldi, ibili ote gara ezkutaketara olgetan beraien gainean? Andre-gizonen aurpegietan eta ezpatan igarriko duzue ondorioa. Zenbat saiatu ote gara armarriek uzten dituzten zirrikitu ilunetatik begiratzen ea hezurrik ikusten ote zen? Orain dela gutxi zabaldu eta aztertu dituzte hezurrok (bi lagunak baino gehiagorenak aurkitu dituzte bertan). Nagusiagotan, zenbat saiatu ote gara bertan idatzitakoa deszifratzen? Zeu be saia



zaitez zer jartzen duen argitzen, hitzen bat lortuko duzu, baina zoratu baino lehen hemen doa erantzuna: "*laquil: yazen: mar-tin: urtiz: de martiartu: y doña: mayor: de: camudio: su muger*".

Testua eta argazkia: Jose Angel Mentxaka

1999ko uda, Limara kooperante ...

1999.eko Uztailak zortzi egun zituen, eta guk Perun hartu genuen lurra. Aeroportutik oso gertu, Limako auzo pobre batetan zegoen ikastetxe tekniko batean uda pasatuko genuen, eskola ematen.

Logela ere bertan genuen. Ilundu zuenerako gure egunak jadanik 31 ordu zituen. Baina gau horrek, lehenengo gaua, gure egonaldia aldatuko zuen.

Iluntasuna aprobetxatuz, txakurrak hil ondoren eta ateetako kirsaketak apurtu ostean, zentruko ordenagailu guztiak lapurtu zituzten, 20.000 euro inguru. Baina hori ez zen izan gertatutako kalterik haundiena. Informatikako klaseak hartzen ari ziren 200 ikasle baino gehiago jarraitzeko aukerarik gabe gelditu ziren.

Kooperante bezala eman nuen lehen gau horrek argi eta garbi erakusten du nolakoa den gure lana. Egunero gertakizunei egokitzea ezin beharrezkoa delarik, bizitzak jartzen dizkiun trabak sahistuz eta aurrera joaz. Baina ahaztu barik norentzako egiten dugun lana.

Perutik etorrira, beste lekuetan errepikatu dut, Costa Rica eta El Salvador,



Iñigo kooperante joan zen Perura orain dela bost urte.

besteak beste. Gabonetan berriro oroitzapen horiek etorri zaizkit gogora, Perun, Kolonbian eta Nicaraguan kooperante bezala dauden lagunak ikusi baititut, eta denok daukagu argi gauza bat: ez dakigu zenbat eman dugun, ahal izan duguna egin dugu, eta batzutan gure buruaren harriduraz inoiz uste izan dugun baino gehiago, baina hala ere askoz gehiago da ikasi duguna.

Gurekin lan egiten duten nekazari, ume, saltzaile, emagaldutako, asko eta asko irakatsi digute denek.

Testua eta argazkia: Iñigo Urrutia

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Oilasko-paparra saltsan

Osagaiak (4 lagunentzat)

- 400 gramo papar
- Uruna
- Kinpula bat
- Tomatea
- Oliba orioa
- Gatza
- Patatak
- Gatza

Prestatzeko era

Egin gatza paparrari eta prijidu urunetan pasauta. Orio prijidutara kinpulea txituta bota eta euki gorritu arte. Bota koilarakada bat urun, eragin eta egin daitela apur bat. Gero saldea edo ura eta tomate txorrostada bat bota eta euki irikiten 10 edo 15 minutuan. Pasatu hau dana pasapuretik paparren ganera bota eta euki irikiten beste 5 edo 10 minutuan. Gura izan ezker, bota patata prijiduak ganera. On egin!



Mari Tere Onaindia

Barbarinak muskuiluzko ozpin-olio erara

Osagaiak

- 6 barbarin-xerra ertainak
(6 filetes de salmonetes medianos)
- 3 tomate
- 6 muskuilu
- Olio
- Modenako ozpina
- Irina
- 2 patata

Prestatzeko era

Barbarinak garbitu ondoren, matxarden bidez hezurak kenduko dizkiegu. Gero irinetan pasa eta frijitu egingo ditugu.

Beste alde batetik, tomateak galda-rraztatu, zuritu, dadotan txikitu eta olio, piper eta oregano apur bat erabilia salteatuko ditugu.

Ozpin-olioa aparte egin eta muskuiluak (egosi eta txikituta) botako ditugu. Halaber, patatak panadera-erara egingo ditugu.

Aurkezteko era:

Patatak plateraren erdian eta tomateak goiko aldean kokatuko ditugu. Barbarin-xerrak ipini eta muskuiluzko ozpin-olioa botako dugu.



Aretxarte jatetxea Zamudion.

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

"Euskal urtea ohituraz betea"

Juan Manuel Etxebarria

Zeberioztar irakasle eta idazleak urtean zehar Euskal Herrian izan doguzan ohituren barri emoten deusku, izen eta ohituren zergaitia aztertuz.

"Gaur egun handia da"

Imanol Azkue

Manexek egun handia ospatuko dau aita Martin, ama Arantza eta arreba Iratirekin. Sari bat hartuko dabe eta egun horretako gorabeherak kontatzen dira liburu honetan.

DISKOAK

"Sartu"

4 Itzal

2001ean sortutako taldearen disko hau rock koloreko 12 kantuz osatuta dago.



"Xiberoko kantuak"

1950etik aurrera bildutako kantuak osatzen dabe disko hau. Aspaldian binilo formatuan atera zan herri kantuen bilduma hau.

DENBORA PASA

Benetan ezagutzen duzu Txorierri?

Gripe arrunta bategatik izan bada be, seguru zure herriko Osasun Zentroa ezagutzen dozueula. Baina gai zarie Txorierriko herri guztietakoak medikugana bidaltzen? Ikusten dozueenez estilo eta era guztietakoak dagoz.



A



B



C



ERANDIO GOIKOA

LARRABETZU 1

ZAMUDIO 2

SONDIKA 4

LEZAMA 5

LOIU 6

DERIO 7



D



F



G

Benetan ezagutzen duzu Txorierri? Emaitzak: A4, B1, C2, D3, E5, F7, G6



Erakusketak

Sondika

Oleoak argazki gaineen. M^a Elena Maldonado. Urtarrilak 19-30

Carmen Gimeno eta Rosario Gonzalezen oleoak. Otsailak 2-13

Gehituren argazki erakusketa. Otsailean. Guztiak erakusketa gelan

Zamudio

Zamudioko Aire Zabaleko Pinturaren I. Lehiaketako olioak eta koadroak. Otsailak 4-14

Belatik baporera. Ontzi modelismoa. Otsailaren 20tik martxoaren 11ra bitartean

Filmak eta antzerkia

Sondika

Metropolitano II. Otsailak 29, 18:00etan

Palabras en los bolsillos. Urtarrilak 30, 18:00etan, Ludoteka leian. 3urtetik 10 urtera arteko umeentzat

Pailazoak. Otsailak 20, 18:00etan, Ludoteka leian. 3 urtetik gorako umeentzat

Zamudio

Tomb Raider, La Cuna de la Vida, otsailak 6; **Los Ángeles de Charlie,** otsailak 13; **Se montó la gorda,** otsailak 20; **La leyenda del pirata Barbanegra,** otsailak 27. Dorretxean, 19:30etan

Hitzaldiak

Loiu

Emakunde. Martxoan, Lauroetan. Ostein, afaria

Zamudio

Euskal urtea ohituraz betea. Juan Manuel Etxebarriaren eskutik. Otsailean, liburutegian

Ikastaroak

Zamudio

Aratusteetako mozorroa. Otsailak 2, 4, 9, 11, 16, 18. Dorrean, 19:30etatik 21:30etara. Argibide gehiago, Udaletxean

Irteerak

Sondika eta Larrabetzu

Luz Ardidenera eskiatzera. Otsailak 13-15

Loiu

El caserio zarzuela. Otsailak 28, Arriaga antzokian

Zamudio

Futuroscopera bidaia. Apirilak 8-12. Argibide gehiago, Udaletxean

Lezama

Vallegrull mendia. Otsailak 8, 8:30etan. Gailur mendi taldeak antolatuta
Frantziara bidaia. Apirilak 8-12. Argibide gehiago, liburutegian

Kamaraka mendia. Otsailak 29, 8:30etan. Gailur mendi taldeak antolatuta

Zamudio, Lezama eta Larrabetzu

Kutsidazu bidea, Ixabel antzezlan. Otsailak 12, 20:00etan, Arriaga antzokian. Argibide gehiago, Udaletxean

Jaiak

Sondika

Inauteriak. Otsailak 27-29

Loiu

Agate deuna. Otsailak 4. Jubilatuen Gure etxea elkartekoekin

Aratusteak. Otsailak 24. Txitxiburduntzia... 17:30etatik aurrera, pilotalekuan

Derio

Aratusteak. Otsailak 20

Zamudio

Agate deuna. Otsailak 4
Aratusteak.

Lezama

Agate deuna. Otsailak 4. Goizean kalejira eskolako umeekin, eta Ekidazu abesbatzarekin arrastian

Aratusteak. Otsailak 20. Artista lehiaketa, herri afaria... 19:00etatik aurrera. Argibide gehiago, Liburutegian

Larrabetzu

Aratusteak. Otsailak 20

Bestelakoak

Sondika

Zuhaitz eguna, otsailak 22. Zuhaitz landaketa, hamaiketako, puzgarriak... 10:00etatik aurrera

Derio

Umeentzako bentrilokuoa. Otsailak 4